DOCUMENT RESUME

ED 361 994 FL 021 204

TITLE Mapa Sociolinguistico. Analisis demolinguistico de la Comunidad Autonoma Vasca derivado del padron de 1986 (Sociolinguistic Map. Demolinguistic analysis of the Autonomous Basque Community derived from the 1986 Census).

INSTITUTION Basque Autonomous Community, Vitoria (Spain). General Secretariat of Linguistic Policy.

REPORT NO ISBN-84-7542-693-X

PUB DATE 89

NOTE 326p.; Title in Basque and Spanish. Basque title reads: "Soziolinguistikaska Mapa 1986. Urteko Erroldaren Araberako Euskal Autonomi Elkarteko Azterketa Demolinguistikoa." Many numbered but blank pages not microfilmed.

PUB TYPE Multilingual/Bilingual Materials (171) -- Statistical Data (110) -- Reference Materials - Geographic Materials (133)

LANGUAGE Basque; Spanish

EDRS PRICE MF01/PC14 Plus Postage.

DESCRIPTORS *Basque; *Demography; Foreign Countries; Language Maintenance; *Language Planning; Language Skill Attrition; Language Standardization; *Maps; *Sociolinguistics; Statistical Analysis; Uncommonly Taught Languages

IDENTIFIERS Spain

ABSTRACT

Sociolinguistic data are presented in the form of sophisticated maps and tables in this pioneering study on the status of the Basque language. Based on information collected from the 1986 census, the major demographic characteristics of Basque are examined in order to ascertain the factors and processes that have contributed to its current status. Detailed province-by-province, community-by-community data on Basque speakers are presented, analyzing such variables as age and social/professional class. It is expected that the results of this study will be used to plan language policy in the region. (KM)

****
* Reproductions supplied by EDRS are the best that can be made *
* from the original document. *
****

ED 361 994

1986.URTEKO ERROLDAREN ARABERAKO EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO AZTERKETA DEMOLINGUISTIKOA

SOZIOLINGUISTIKAZKO MAPA



U.S. DEPARTMENT OF EDUCATION
Office of Educational Research and Improvement
EDUCATIONAL RESOURCES INFORMATION CENTER (ERIC)

☒ This document has been reproduced as received from the person or organization originating it.

☐ Minor changes have been made to improve reproduction quality.

• Points of view or opinions stated in this document do not necessarily represent official OERI position or policy.

PERMISSION TO REPRODUCE THIS MATERIAL HAS BEEN GRANTED BY

M. Carmen Garmendia Lax.

TO THE EDUCATIONAL RESOURCES INFORMATION CENTER (ERIC)

ANALISIS DEMOLINGÜISTICO DE LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA DERIVADO DEL PADRON DE 1986

FL 032 434

Lehen argitaraldia: 1989ko iraila
Ale-kopurua: 4.000 ale

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritza
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011 GASTEIZ
Azala: José Julio Arregi
Fotokonposaketa: Rali, S. A.
Imprimatzailea: Gráficas Santamaría, S. A.
ISBN: 84-7542-693-X
L.G.-VI-372/1989

EUSKO JAURLARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

GOBIERNO VASCO
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGUISTICA

SOZIOLINGUISTIKAZKO MAPA
1986. URTEKO ERROLDAREN ARABERAKO
EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO AZTERKETA DEMOLINGUISTIKOA

MAPA SOCIOLINGÜISTICO
ANALISIS DEMOLINGÜISTICO DE LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA
DERIVADO DEL PADRON DE 1986

Vitoria-Gasteiz, 1989

SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA

PRESENTACION

La Secretaria General de Política Lingüística del Gobierno Vasco presenta este Mapa Sociolingüístico, estudio pionero que pretende recoger y divulgar los rasgos demolingüísticos más destacados de la situación actual del euskera, a fin de posibilitar el conocimiento de las causas y los procesos que han llevado a dicha situación.

Aun siendo muy importante el trabajo realizado, esta Secretaría General de Política Lingüística no duda de que el avance en la elaboración de los instrumentos necesarios para la realización de investigaciones como la presente, así como el enriquecimiento de la información complementaria, permitirán conocer con mayor profundidad nuestra situación sociolingüística y, asimismo, asegurar la toma de medidas necesarias para el éxito del porvenir social del euskera. Es por ello que esta Secretaría General de Política Lingüística está preparando ya los mecanismos de medición y análisis necesarios para conocer con mayor profundidad la información contenida en el presente estudio.

Estamos seguros de que el Mapa Sociolingüístico contribuirá de una forma eficaz al conocimiento y a la reflexión de toda la sociedad en lo que se refiere al proceso de normalización del euskera. Sólo me resta agradecer su inestimable colaboración a la Comisión de Demolingüística del Consejo Asesor del Euskera (J.L. Lizundia, M.A. Iztueta, I. Martínez de Luna, J.J. González de Txabarri, G. Egia, E. Oregi, J.I. Berasategi, J. Intxausti, I. Larrañaga, X. Aizpurua, J. Azkue y P. Sagardoy), cuya dedicación ha hecho posible la realización de este Mapa, así como a M. Zalbide, autor de la definición de los índices utilizados en él, a las Sociedades Públicas EUSTAT y EJIE, encargadas del tratamiento de los datos contenidos en él, a SIADECO, encargada de la lectura de los mismos y, finalmente, a D. Amundarain y P. Esnal, colaboradores en la corrección de estilo de la versión en euskera.

M. Carmen Garmendia Lasa
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA

AURKEZPENA

Poz handiz jartzen dut, irakurle, zure eskuetan euskararen gaur egungo egoerari buruzko mapa. Ezinbesteko hutsuneak berekin dituen arren, zinez aitortzen dizut arlo honetan burutu den lanik bikainena dela. Lagun eta ordu askoren lan emaitza baliagarria.

Pentsa dezakezunez, soziolinguistikazko mapa hau ez da euskaltzaleon jakinmina asebetetzeko tresna soil gisa zabaltzen. Badu mapa honek eginkizun eraginkorragorik. Euskararen osasun egoera ezagutzeko argibideak, zenbaitetan lausoturik ematen diren arren, eskaintzen dizkigu gure hizkuntzaren geroa zimentarri tinkoetan oinarriturik eraiki ahal izateko.

Euskararen bizia indarberritzeko garaia iritsi zaigu eta nondik gatozen, non gauden eta norantz abiatu behar dugun jakiteko lanabes baliagarria izango da honako lan hau. Badakigu mugatua dela, euskararen erabilera mailak berak ihes egiten digula, damurik Euskal Herriko lurralde batzuetako datuak kanpoan gelditu zaizkigula. Lehen pausoa da. Ez dugu aurrerantzean honako lan hau osatzeko esperantzarik galdu behar.

Maparen nondik norakoa zerorrek ikusiko duzu ondorengo orrialdeetan. Herri-agintariek, euskalgintzaren eragileek, euskaldunek eta euskararen aldeko apustua egin dutenek, badute zer arakatu eta hausnartua aurrerantzean nondik nora jo asmatu ahal izateko. Esku artean duzun lan honek dakarren mezua euskal gizarte honen oihartzuna duzu, erantzuna eskatzen duen deiadar itxaropentsua. Bistan da mapa honek jarraipena eskatzen duela eta, bereziki, gutako bakoitzari eskatzen digula osa eta bete dezagun.

Lan eta ahalegin askoren emaitza duzu, bada, lan hau, eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiet bertan su eta gar, etengabeko lanean jardun duten guztiei: Euskararen Aholku Batzordeko Demolinguistika Batzordeko partaide diren J.L. Lizundia, M.A. Iztueta, I. Martinez de Luna, J.J. Gonzalez Txabarri, G. Egia, E. Oregi, J.I. Berasategi, J. Intxausti, I. Larrañaga, X. Aizpurua, J. Azkue eta P. Sagardoyri; indizeen definizioak eman dizkigun M. Zalbideri eta datuen trataerari ekin dioten EUSTAT eta EJIEri, datuen irakurketa-lana egin duen SIADECO elkarteari eta hizkuntz orrazketan lagundu duten D. Amundarain eta P. Esnali.

Eta geroaren euskal mapagintzan lankide zaitugun horri Orixek bere 'Euskaldunak' poema lanaren atarian euskarari opa zion iraupena ezezik, arnas eta indarberrituko den itxaropena ere adierazi nahi dizut. Hori egiaztaraztea gure esku dago.

M. Karmen Garmendia Lasa
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARI NAGUSIA

SUMARIO

INTRODUCCION 10

Objetivos del presente estudio 12
Contenidos analizados y observaciones metodológicas 12
Evolución de la población de la Comunidad Autónoma Vasca 14

a) Evolución de la población en el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca 16
b) Evolución de la población por Territorios Históricos 16
c) Evolución de la población por comarcas 18

I. Competencia lingüística y lengua materna 21

I.1. Competencia lingüística 22

I.1.1. En el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca 22
I.1.2. Por Territorios Históricos 22
I.1.3. Por comarcas 24
I.1.4. Por edades 30

I.2. Lengua materna 40

I.2.1. En el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca 40
I.2.2. Por Territorios Históricos 40
I.2.3. Por comarcas 42
I.2.4. Por edades 46
I.2.5. Análisis de la lengua materna por edades y por Territorios Históricos 46

I.3. Conclusiones de la competencia lingüística y la lengua materna 64

I.3.1. En el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca 64
I.3.2. Por Territorios Históricos 66
I.3.3. Por áreas y tamaño de los municipios 66
I.3.4. Modelos de municipios 92

I.3.4.1. Definición y características generales de los modelos 92
a) Municipios castellanófonos 94
b) Municipios vascófonos 96
c) Recuperación acelerada 98
d) Recuperación lenta 100
e) Regresión ralentizada 102
f) Regresión ininterrumpida 104

I.3.4.2. Conclusiones respecto a la tipología 106
a) Análisis de las diferencias tipológicas 106
b) Distribución de los municipios, por territorios, según los modelos, en función de de las dos variables básicas 108

I.3.5. Indice KENK 132

AURKIBIDEA

SARRERA 11

Ikerketa honen helburuak 13
Aztertutako edukiak eta metodologi argibideak 13
Euskal Autonomi Elkarteko biztanleriaren bilakaera 15

a) Biztanleriaren bilakaera Euskal Autonomi Elkartea osorik hartuz 17
b) Biztanleriaren bilakaera herrialdeka 17
c) Biztanleriaren bilakaera eskualdeka 19

I. Hizkuntz gaitasuna eta ama-hizkuntza 21

I.1. Hizkuntz gaitasuna 23
I.1.1. Euskal Autonomi Elkarte osoan 23
I.1.2. Herrialdeka 23
I.1.3. Eskualdeka 25
I.1.4. Adinaren arabera 31

I.2. Ama-hizkuntza 41
I.2.1. Euskal Autonomi Elkarte osoan 41
I.2.2. Herrialdeka 41
I.2.3. Eskualdeka 42
I.2.4. Adinaren arabera 47
I.2.5. Ama-hizkuntzaren azterketa adinaren arabera eta herrialdeka 47

I.3. Ama-hizkuntza eta hizkuntz gaitasunaren emaitzak 65
I.3.1. Euskal Autonomi Elkarte osoan 65
I.3.2. Herrialdeka 67
I.3.3. Eremuaren eta udalerrien tamainaren arabera 67
I.3.4. Udalerri-ereduak 93
I.3.4.1. Ereduen zehaztapen eta ezaugarri nagusiak 93
a) Udalerri erdaldunduak 95
b) Udalerri euskaldunenak 97
c) Berreskurapen bizia 99
d) Berreskurapen motela 101
e) Galera galgatua 103
f) Galera etengabea 105
I.3.4.2. Ereduen ondorioak 107
a) Eredu aldaketen azterketa 107
b) Udalerrien herrialdekako banaketa, ereduen eta bi aldagai nagusien arabera 109

I.3.5. KENK indizea 133

II. Análisis de los índices 137

II.1. Análisis de los índices relativos a la población que tiene como lengua materna al menos euskera 138

II.1.1. Indice de pérdida 1 (Lengua materna euskera) 138
II.1.2. Indice de pérdida 2 (Lengua materna euskera y castellano) 144
II.1.3. Indice de retención 148
II.1.4. Indice de elaboración 152

II.2. Indices relativos a quienes tienen el castellano u otra lengua distinta del euskera como lengua materna 156

II.2.1. Indices de incorporación 156
II.2.2. Euskaldunberris activos 158

En el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca 158
Euskaldunberris activos por Territorios Históricos 158
Euskaldunberris activos por comarcas 164
Euskaldunberris activos por grupos de edad 174
Euskaldunberris activos por titulaciones 176
Euskaldunberris activos según la situación laboral y profesional 176

II.3. Resultados de los índices 178

III. Conclusiones generales 233

III.1. Punto de vista geográfico 234
III.2. Según la variable edad 242
III.3. Según la situación socio-profesional 244

III.3.1. Por situación laboral 244
III.3.2. Por profesiones 244
III.3.3. Por titulaciones 246

IV. Ideas para avanzar en la elaboración del mapa de planificación sociolingüística 251

IV.1. Situación presente 252
IV.2. Ideas para avanzar en la elaboración del mapa de planificación sociolingüística 252
IV.3. Propuesta de estudios a realizar 254
IV.3.1. Validación de la información existente 254
IV.3.2. Microcenso de euskaldunes 254

Relación de tablas, mapas y gráficos 257

Anexos 267

1. Descripción de las variables básicas 268
2. Otras variables: titulación, profesión 270
3. Definición de los índices elaborados a partir de las variables básicas 272
4. Denominación de los municipios por Territorios Históricos y por comarcas 274
5. Clasificación de los municipios en áreas vascófona y no vascófona según tamaños 284
6. Relación de tablas analizadas para la elaboración de este estudio 296

II. Indizeen azterketa 137

II.1. Ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, duen biztanleriari dagozkion indizeen azterketa . 139

II.1.1. Gal-indarra 1 (Ama-hizkuntza euskara bakarrik) 139
II.1.2. Gal-indarra 2 (Ama-hizkuntza, euskara eta gaztelania) 145
II.1.3. Eutsi-indarra 149
II.1.4. Gara-indarra 153

II.2. Ama-hizkuntza gaztelania edo beste erdararen bat dutenekiko indizeak 157

II.2.1. Erakar-indarrak 157
II.2.2. Euskaldunberri aktiboak 159

Euskal Autonomi Elkarte osoan 159
Euskaldunberri aktiboak herrialdeka 159
Euskaldunberri aktiboak eskualdeka 165
Euskaldunberri aktiboak adin-taldeka 175
Euskaldunberri aktiboak titulazioka 177
Euskaldunberri aktiboak lan-egoeraren eta lanbidearen arabera 177

II.3. Indizeen emaitzak 179

III. Emaitza nagusiak 233

III.1. Geografiaren ikuspegia 235
III.2. Adinaren arabera 243
III.3. Egoera sozio-profesionalaren arabera 245

III.3.1. Lan-egoeraren arabera 245
III.3.2. Lanbidearen arabera 245
III.3.3. Titulazioaren arabera 247

IV. Soziolinguistikazko plangintza-mapa lantzeko urraspideak 251

IV.1. Egungo egoera 253
IV.2. Soziolinguistikazko plangintza-mapa lantzeko urraspideak 253
IV 3. Egin beharreko ikerketen proposamena 255
IV.3.1. Egun dagoen informazioa balioztatzea 255
IV.3.2. Euskaldunen mikroerrolda 255

Taula, mapa eta irudi-zerrenda 257

Eraskinak 267

1. Oinarrizko aldagaien azalpena 269
2. Beste aldagaiak: Ikasketa-mota, lanbidea 271
3. Oinarrizko aldagaietan oinarriturik landutako indizeen azalpena 273
4. Udalerrien izenak, herrialdeka eta eskualdeka 275
5. Eremu euskaldunenaren eta erdaldunduaren araberako udalerrien sailkapena, tamainaka 285
6. Ikerketa honen prestakuntzarako erabilitako taula-zerrenda 297

INTRODUCCION

La Ley 10/1982, Básica de Normalización del Uso del Euskera, aprobada por el Parlamento Vasco el día 13 de Noviembre de 1982, en su Disposición Adicional Segunda establece que:

"El Gobierno elaborará el mapa de planificación socio-lingüística del País Vasco que será revisado periódicamente, previa información al Parlamento Vasco."

El Parlamento Vasco, en sesión ordinaria celebrada los días 27 y 28 de Mayo de 1986, acordó aprobar la Proposición No de Ley presentada por el Grupo Parlamentario Euskadiko Ezkerra sobre la elaboración del mapa de planificación sociolingüística. El Boletín Oficial del Parlamento de 13 de Junio de 1986 recoge así dicho acuerdo:

"El Parlamento Vasco, considerando que la planificación lingüística debe ser objeto del mayor consenso social posible, insta al Gobierno Vasco para que:

1. Elabore un mapa socio-lingüístico que refleje la actual situación idiomática en el País Vasco, remitiendo al Parlamento dicho mapa, con los objetivos, prioridades, medios y recursos a utilizar en la elaboración de la planificación socio-lingüística.

2. En cumplimiento de lo que ordena la Disposición Adicional Segunda de la Ley de Normalización del Uso del Euskera, proceda en el plazo de 12 meses a la elaboración del mapa de planificación socio-lingüística."

Posteriormente, la Dirección de Estadística del Gobierno Vasco presentó su programa de trabajo en las Jornadas sobre Planificación Lingüística organizadas por la Secretaría General de Política Lingüística en Donostia-San Sebastián en agosto de 1986, concretando los trabajos de explotación y validación que aún se estaban relizando y cuya finalización estaba prevista para diciembre de 1986.

Por otra parte, el Acuerdo de Gobierno señala que los instrumentos para el desarrollo del proceso de normalización del Euskera son, entre otros:

- el Mapa Sociolingüístico.
- el Mapa de Planificación lingüística.

Dicho acuerdo de Gobierno señala asimismo que el "Mapa de Planificación Lingüística" será el instrumento que permita la concreción de las diversas políticas sectoriales en materia lingüística.

Por otra parte, el Decreto 306/1987, de 6 Octubre, por el que se determina la estructura y funciones de la Secretaría de la Presidencia, en su artículo 5.1.f) atribuye las siguientes tareas a la Secretaría General de Política Lingüística:

"Elaborar y revisar periódicamente, el mapa de planificación sociolingüística del País Vasco para su aprobación por el Gobierno a los efectos de lo previsto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera".

Por último, el Decreto 370/1987, de 15 de Diciembre, por el que se transforma el Consejo Asesor del Euskera establece en el artículo 5.i) que es función del Pleno del Consejo Asesor "Informar sobre el Mapa de Planificación Sociolingüística antes de su elaboración o revisión por el Gobierno"; y en el artículo 10.a.2)

SARRERA

1982ko Azaroaren 13an Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen Bigarren Erabaki Gehigarriak honela dio:

"Jaurlaritzak, Euskal Herriko gizarte-hizkuntzazko egitamuketarako mapa egingo du, hori aldian-aldian Eusko Legebiltzarrari jakin erazi ondoren birrikuskatuz."

Eusko Legebiltzarrak, 1986ko Maiatzaren 27an eta 28an egindako Agizko Bilkuran, Euskadiko Ezkerra Legebiltzar-Taldeak gizarte-hizkuntzalaritzako egitamu-mapa egiteari buruz egindako Legez Besteko Saloa baiesteko erabakia hartu zuen, 1986ko Ekainaren 13ko Agintaritzaren Aldizkariak dioenez:

"Eusko Legebiltzarrak, hizkuntzalaritza-egitamuak gizartearen aldetikako irizkidetasunik haundienaren gai izan behar duela uste duenez, honako honetarako akio egiten dio Eusko Jaurlaritzari:

1. Euskal Herriango gaur eguneko hizkuntza-egoera azaldu dezan mapa bat egin dezala, mapa hori, gizarte-hizkuntzalaritzako egitamua egiterakoan erabili beharreko helburu, lehentasun, bitarteko eta baliapideekin batera, Legebiltzarrera igorriz.

2. Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak bere Bigarren Erabaki Gehigarrian agintzen duenaren arauera, gizarte-hizkuntzalaritzako egitamu-mapa 12 hilabeteren barruan egin dezala."

Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Estatistika Zuzendaritzak 1986ko Abuztuaren hasieran aurkeztu zuen bere lan-programa, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eratutako Hizkuntz Plangintzazko Jardunaidietan. Bertan zehaztu zituzten artean euskarari buruz egiten ari ziren eta 1986ko Abendurako egin asmo zituzten hustuketa eta balioespen-lanak.

Bestalde, Jaurlaritza-Ituneak euskararen normalkuntza-bidearen aurrerapiderako tresnak honako hauek izango direla dio:

– Soziolinguistikazko Mapa.

– Hizkuntz Plangintzazko Mapa.

Jaurlaritza-Itune horrek, halaber, hizkuntzaren eremuan arlo ezberdinetako politikabideak gauzatzeko tresna "Hizkuntz Plangintzazko Mapa" izango dela zehazten du.

Bestetik, Lehendakaritzaren Idazkaritzaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen Urriaren 6ko 306/1987 Dekretuaren 5.1.f) atalak honako betebehar hauek ezartzen dizkio Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiari:

"Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen Erabaki Gehigarrietatik Bigarrenak dioenaren ondorioetarako, Euskal Herriko gizarte-hizkuntzazko egitamuketarako mapa gertatzea eta, aldian-aldian, birraztertzea, Jaurlaritzak onartu dezan."

Azkenik, Euskararen Aholku-Batzordea antzaldatzen duen Abenduaren 15eko 370/1987 Dekretuaren 5.i) atalak dio Aholku-Batzorde Osoaren eginkizun dela "Gobernuak Soziolinguistikazko Plangintza-Mapa prestatu edo berrikusi aurretik, honi buruzko argibideak ematea", batetik, eta bestetik, 10.a.2.) atalak

establece asimismo que las Comisiones Especiales que se creen por acuerdo del Pleno del Consejo Asesor prestarán especial atención al Mapa de Planificación Sociolingüística.

Por todo ello, una vez transformado el Consejo Asesor del Euskera, el programa de trabajo aprobado en el Pleno celebrado por dicho organismo el 2 de Marzo de 1988 recoge la creación inmediata de la Comisión de Demolingüística, con el objeto de poder acometer a la mayor brevedad una de las tareas establecidas en el Decreto. Así pues, el Consejo Asesor del Euskera estudió y aprobó en sesión plenaria el 24 de Marzo de 1988 la propuesta titulada *Borrador para la elaboración del Mapa Sociolingüístico de la Comunidad Autónoma del País Vasco* presentado por la Secretaría General de Política Lingüística. Por otra parte, la Secretaría General solicitó al Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) la preparación, en el menor plazo posible, de los datos requeridos en dicho borrador y solicitó asimismo a Eusko Jaurlaritzaren Informatika-Elkartea (EJIE) la realización de las tablas pertinentes.

El presente estudio es fruto por lo tanto, de la labor efectuada en el seno de la Comisión de Demolingüística del Consejo Asesor del Euskara, bajo la coordinación de la Secretaría General de Política Lingüística, y contando con la inestimable colaboración de EUSTAT y EJIE.

Esta reflexión no habría sido posible sin la ingente labor de lectura de tablas y datos que la empresa SIADECO ha llevado a cabo, según las directrices emanadas de la Secretaría General de Política Lingüística y del Consejo Asesor del Euskara.

Objetivos del presente estudio

El objetivo del presente estudio consiste en describir la situación del euskera en la Comunidad Autónoma del País Vasco por un lado y por otro en facilitar un instrumento útil para la planificación lingüística.

Gracias a los datos recogidos sobre el euskera en el Padrón de 1986, se dispone de una variada y abundante información, a partir de la cual se han elaborado distintos índices que permiten profundizar en la situación lingüística de la Comunidad Autónoma Vasca, al tiempo que permiten vislumbrar los procesos que se están dando.

Con vistas al futuro, esta recopilación y análisis de información básica tiene por objeto constituir una herramienta o instrumento de trabajo adecuado para el diseño de programas de actuación necesarios para la normalización del uso del euskera.

Contenidos analizados y observaciones metodológicas

Este estudio consiste en describir la situación presente del euskera, en la Comunidad Autónoma Vasca (C.A.V.).

Para ello se parte de los datos del Padrón de 1986 y se centra en quienes total o parcialmente conocen el euskera. En cuanto a la metodología seguida para la descripción de la situación actual del euskera, en primer lugar hay que tener presente que el Padrón ofrece, como información básica, dos variables:

– la lengua materna de cada habitante de la C.A.V.

– el nivel de conocimiento o competencia lingüística en euskera de cada habitante de la C.A.V.

Dicho de otro modo, estas dos variables muestran dos momentos de la evolución lingüística de cada ciudadano: el punto de partida (lengua materna) y el estado actual (competencia lingüística).

Los índices utilizados para reflejar dicha evolución son los siguientes:

a) *Índices relativos a la competencia lingüística actual de los habitantes cuya lengua materna es el euskera.*

– **Índice de retención**: porcentaje de población que tiene como lengua materna al menos euskera y que habla correctamente en euskera.

– **Índice de elaboración**: porcentaje de población cuya lengua materna es al menos euskera y debe hablar y escribir correctamente en euskera.

– **Índice de pérdida 1**: porcentaje de la población cuya lengua materna es el euskera y ha perdido totalmente la competencia lingüística oral en este idioma. No saben hablar euskara.

– **Índice de pérdida 2**: porcentaje de la población cuya lengua materna es el euskera y el castellano y que ha perdido totalmente la competencia lingüística oral de este idioma. No saben hablar euskera.

dio Aholku-Batzorde Osoaren erabakiz eratu ahal izango diren Berarizko Batzorde-atalek berarizko ardura eskainiko diotela Soziolinguistikazko Plangintza-Mapari.

Horrexegatik, Euskararen Aholku-Batzordea eraberritu ahala, 1988ko Martxoaren 2an egin zuen bileran onartutako lan-egitarauak Demolinguistikazko Batzorde-atalaren berehalako sorrera jasotzen du, aipatu Dekretuan zehazten den eginbeharretako bati lehenbait lehen ekin ahal izateko. Honela bada, Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak aurkeztutako *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Soziolinguistikazko Mapa prestatzeko zirriborroa* izeneko proposamena aztertu eta onartu zuen 1988ko Martxoaren 24ean. Bestalde, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren Estatistika Erakundeari (EUSTAT) zirriborro honetan zehaztutako datuak lehenbait lehen presta zitzala eskatu zion, eta baita Eusko Jaurlaritzaren Informatika-Elkarteari (EJIE) taula egokiak lantzeko ere.

Eskuartean duzuen ikerlan hau, beraz, Euskararen Aholku-Batzordeko Demolinguistikazko Batzorde-atalaren baitan egina da, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak koordinaturik eta EUSTATen eta EJIEren lankidetza baliotsuaz.

Hausnartze-lan hori ezinezkoa zatekeen SIADECO elkarteak egin duen taula eta datuen irakurtze-lan mardula burutu izan ez balu, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eta Euskararen Aholku-Batzordeak emandako azterpideei jarraituz.

Ikerlan honen helburuak

Euskal Autonomi Elkartean euskararen egungo egoeraren deskribapena egitea, batetik, eta hizkuntz plangintzarako tresna baliagarria eskuratzea, bestetik, dira ikerlan honen helburuak.

1986ko Erroldan euskarari buruz bildutako datuei esker, informazio ugaria eta aberatsa eskuratu da. Datu horietan oinarriturik Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntz egoera sakonago aztertu ahal izateko zenbait indize landu dira, hizkuntz prozesuak somatzeko baliagarri gertatuko direnak.

Etorkizunari begira, oinarrizko informazio eta ikerlan honek euskararen erabilera normaltzeko beharrezkoak diren ekintza-programak bideratzeko abiapuntu izatea du helburu.

Aztertutako edukiak eta metodologi argibideak

Euskal Autonomi Elkarteko (E.A.E.) euskararen egungo egoera azaltzean datza ikerlan hau.

Horretarako, 1986ko Erroldako datuak hartu dira oinarritzat. Euskara gutxi-asko dakitenetara mugatuko da. Euskararen egungo egoeraren deskribapena burutzean nola jokatu den adierazteko, lehenik eta behin izan behar da kontutan oinarrizko informazio bezala Erroldak bi aldagaiok ematen dituela:

– E.A.E.ko biztanle bakoitzaren ama-hizkuntza.

– E.A.E.ko biztanle bakoitzaren euskararen ezagupen-maila edo hizkuntz gaitasuna.

Beste era batera esanda, bi aldagai hauek lagun bakoitzaren hizkuntz historiaren bi muturrak adierazten dituzte: abiapuntua (jatorrizko hizkuntza) eta egungo egoera (hizkuntz gaitasuna).

Ibilbide hori erakusteko erabili diren indizeak honako hauek izan dira:

a) *Ama-hizkuntza euskara duten biztanleek gaur egun duten hizkuntz gaitasunari buruzko indizeak.*

– **Eutsi-indarra:** ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, izan eta euskaraz ongi hitz egiten duten biztanleen ehunekoa.

– **Gara-indarra:** ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, izan eta euskaraz ongi hitz egiten eta idazten duten biztanleen ehunekoa.

– **Gal-indarra 1:** ama-hizkuntza euskara bakarrik izan eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna erabat galdu duten biztanleen ehunekoa. Euskaraz hitz egiten ez dakite.

– **Gal-indarra 2:** ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna erabat galdu duten biztanleen ehunekoa. Euskaraz hitz egiten ez dakite.

b) *Indices de la situación lingüística actual de quienes poseen una lengua materna distinta del euskera.*

—**Indice de incorporación activa oral**: porcentaje de población de lengua materna no-euskera que hablan en euskera correctamente.

—**Indice de incorporación activa escrita**: porcentaje de población de lengua materna no-euskera que escriben en euskera correctamente.

—**Indice de incorporación activa**: porcentaje de población de lengua materna no-euskera que hablan o escriben en euskera correctamente.

—**Indice de incorporación pasiva**: porcentaje de población de lengua materna no-euskera que entienden el euskera correctamente y no saben hablarlo.

Por otra parte, como resultado de la comparación de las dos variables básicas se ha obtenido el denominado índice KENK que refleja la diferencia existente entre las cifras de euskaldunes y las de lengua materna al menos euskera.

Además, tanto las variables básicas como los índices han sido analizados a la vista de otras variables. Tales como:

Distribución geográfica:

—A nivel de la Comunidad Autónoma Vasca.

—Por Territorios Históricos.

—Por Comarcas.

—Por Municipios.

Edad:

—Por grupos de edad.

—Año a año.

Situación socio-profesional:

—Por Profesiones.

—Por Titulaciones.

—Por Situaciones laborales.

En la mayoría de los casos se han cruzado dos variables: las variables básicas o índices por un lado, y las variables geográfica, de edad o socio-profesional por otro (por ejemplo: lengua materna por territorios históricos, por comarcas, etc.).

En otros casos, se han cruzado tres y cuatro variables: las variables básicas o índices por un lado, y las variables geográfica, de edad y socio-profesional por otro (por ejemplo: lengua materna por territorios históricos, por grupos de edad y por titulaciones).

Ello permite conocer la situación lingüística de la población de la Comunidad Autónoma Vasca.

Por último, hay que señalar que el Padrón se elabora a partir de respuestas subjetivas de los ciudadanos lo que supone una autovaloración no contrastada objetivamente. Dicha característica, inherente a todo Padrón, ha de ser tenida en cuenta para la lectura e interpretación de los datos.

De cualquier modo es preciso subrayar que la información recogida sobre el euskera en el Padrón de 1986, además de ser la más abundante hasta el momento presente, es también la más valiosa debido a que recoge no sólo información acerca del conocimiento del euskera, como sucedía en el Padrón de 1981 sino también acerca de la lengua materna lo cual permite elaborar los índices para interpretar los procesos lingüísticos que están teniendo lugar.

Evolución de la población de la Comunidad Autónoma Vasca

Para cerrar esta introducción se ofrecen a continuación una serie de notas acerca de la evolución de la población en la Comunidad Autónoma Vasca.

b) *Ama-hizkuntza erdara dutenen egungo hizkuntz egoerari buruzko indizeak.*

– **Ahozko erakar-indar aktiboa:** ama-hizkuntzaz erdaldun izan eta euskaraz ongi hitz egiten duten biztanleen ehunekoa.

– **Idatzizko erakar-indar aktiboa:** Ama-hizkuntzaz erdaldun izan eta euskaraz ongi idazten duten biztanleen ehunekoa.

– **Erakar-indar aktiboa:** ama-hizkuntzaz erdaldun izan eta euskaraz ongi hitz egiten edo idazten duten biztanleen ehunekoa.

– **Erakar-indar pasiboa:** ama-hizkuntzaz erdaldun izan eta euskaraz ongi ulertzen duten biztanleen ehunekoa.

Bestalde, oinarrizko bi aldagaiak alderatuz KENK indizea lortu da, euskaldunen eta ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, dutenen arteko aldea erakusten duena.

Oinarrizko aldagaiak eta indizeak beste zenbait aldagairen arabera aztertu dira. Hala nola:

Geografi banaketa:

– Euskal Autonomi Elkarte osoan.

– Herrialdeka.

– Eskualdeka.

– Udalerrika.

Adina:

– Adin-taldeka.

– Urtez urteka.

Egoera sozio-profesionala:

– Lanbideka.

– Titulazioka.

– Lan-egoeraka.

Kasurik gehienetan, gurutzapenak bi aldagairen artean egin dira: oinarrizko aldagaiak ala indizeak, alde batetik, eta geografia, adin nahiz egoera sozio-profesionalaren aldagaiak, bestetik (adibidez: ama-hizkuntza herrialdeka, eskualdeka, eta abar).

Beste kasu batzutan, gurutzapenak hiru eta lau aldagairen artean egin dira: oinarrizko aldagaiak ala indizeak, alde batetik, eta geografia, adin nahiz egoera sozio-profesionalaren aldagaiak, bestetik (adibidez: ama-hizkuntza herrialdeka, adin-taldeka eta titulazioaren arabera).

Horiei esker, Euskal Autonomi Elkarteko biztanleriaren hizkuntz egoera jakitea lortu da.

Azkenik, Errolda herritarren erantzunak oinarri harturik egiten dela aipatu beharra dago, eta horrek gauzak direnean egiaztatu gabeko autobalorazio izatea dakarkiola. Datuok irakurri eta ulertzerakoan beti ere kontutan hartu beharrekoa da erroldagintza orori datxekion nolakotasun hori.

Dena den, 1986ko Erroldan euskarari buruz bildutako informazioa, orain arte inoiz bildu den ugariena ezezik, baliagarriena ere badela azpimarratu beharra dago. Alde batetik, 1981eko Erroldan zegoen euskararen ezagupenaren informazioaz gainera, biztanleriaren ama-hizkuntzari dagokiona ere jasotzen duelako, eta informazio horri esker garatzen ari diren hizkuntz prozesuek adierazten dituzten indizeak lantzea lor daitekeelako.

Euskal Autonomi Elkarteko biztanleriaren bilakaera

Sarrera honi amaiera emateko, Euskal Autonomi Elkarteko biztanleriaren bilakaerari buruzko zenbait ohar emango da.

a) *Evolución de la población en el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca*

La evolución de la población en los territorios históricos de la Comunidad Autónoma Vasca a lo largo del presente siglo puede verse en la siguiente tabla:

AÑO	POBLACION DE DERECHO			
	C.A.V.	ALAVA	BIZKAIA	GUIPUZCOA
1900	602.204	98.066	307.607	196.531
1910	672.884	99.399	352.058	221.427
1920	783.125	101.357	421.264	260.504
1930	885.601	105.729	482.603	296.269
1940	948.906	112.503	510.590	325.003
1950	1.039.465	114.139	554.302	371.024
1960	1.358.707	133.742	751.014	473.951
1970	1.867.287	199.777	1.041.461	626.049
1975	2.072.100	237.473	1.154.873	679.754
1981	2.141.809	257.850	1.189.178	694.681
1986	2.136.100	267.780	1.179.150	689.222

Como muestran los datos expuestos, en el presente siglo se observan las siguientes etapas o épocas respecto al crecimiento de la población:

– De 1900 a 1950: fase de crecimiento continuo y moderado.

– De 1950 a 1975: crecimiento acelerado. En un lapso de 25 años se duplica la población.

– De 1975 en adelante: el crecimiento se ralentiza al principio de este período (1975-1981) y, como nunca antes en este siglo, arroja un resultado negativo en los últimos años (1981-1986).

Como conclusión puede afirmarse que la población de la C.A.V. en los últimos 5 años ha experimentado una aminoración de su dinámica de crecimiento poblacional, y que ahora muestra una situación de equilibrio y estabilidad.

b) *Evolución de la población por Territorios Históricos*

Territorio Histórico de Alava:

– En el período comprendido entre 1900-1950, el crecimiento es considerablemente lento.

– De 1950 en adelante, se produce un crecimiento más acelerado, que aún continúa, aunque últimamente en forma más moderada.

Territorio Histórico de Bizkaia:

– En el período comprendido entre 1900-1950, el aumento de la población es moderado.

– De 1950 a 1975, la población se duplica (crecimiento muy acelerado).

– A partir de 1975 el crecimiento se estabiliza, para decrecer desde 1981.

Territorio Histórico de Guipúzcoa:

– De 1900 a 1950, la población prácticamente se duplica.

– De 1950 a 1975, el crecimiento es acelerado aunque menor que en Alava y en Bizkaia.

– A partir de 1975 el proceso es paralelo al de Bizkaia.

En los últimos cinco años (1981-1986) la población ha disminuido en la C.A.V., un total de 5.709 habitantes, con la siguiente distribución: Alava cuenta con 9.878 habitantes más, Bizkaia pierde 10.128 y Guipúzcoa pierde, asimismo, 5.459.

a) *Biztanleriaren bilakaera Euskal Autonomi Elkartea osorik hartuz*

Honako hau izan da mende honetan zehar Euskal Autonomi Elkartea osatzen duten herrialdeek izan duten biztanleriaren bilakaera:

URTEA	BIZTANLERIA			
	E.A.E.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1900	602.204	98.066	307.607	196.531
1910	672.884	99.399	352.058	221.427
1920	783.125	101.357	421.264	260.504
1930	885.601	105.729	482.603	296.269
1940	948.906	112.503	510.590	325.003
1950	1.039.465	114.139	554.302	371.024
1960	1.358.707	133.742	751.014	473.951
1970	1.867.287	199.777	1.041.461	626.049
1975	2.072.100	237.473	1.154.873	679.754
1981	2.141.809	257.850	1.189.178	694.681
1986	2.136.100	267.780	1.179.150	689.222

Datuek adierazten dutenez, mende honetan zehar aldi edo aro ezberdinak izan dira. Hala nola:

– 1900etik 1950era artekoa: hazkunde jarraitua eta neurrizkoa.

– 1950etik 1975era: hazkunde bizkorra; 25 urtetan biztanleria bikoiztu egin da.

– 1975etik aurrerakoa: hazkundea aro honen hasieran (1975-1981) mantsotu egin da; eta, mende honetan inoiz ez bezala, azken urteotan (1981-1986) emaitza negatiboa izan du.

Ondorio bezala esan daikete azken bost urteotan E.A.E.ko biztanleriaren hazkunde-dinamika moteldu egin dela eta egoera egonkor edo orekatua agertzen dela orain.

b) *Biztanleriaren bilakaera herrialdeka*

Araba:

– 1900-1950 bitartean, nahiko hazkunde motela izan da.

– 1950etik aurrera, hazkunde bizkorragoa; moteldu bada ere, ez da oraindik gelditu.

Bizkaia:

– 1900-1950 bitartean, biztanleria motel doa handituz.

– 1950etik 70era, biztanleria bikoiztu egin da (hazkunde oso bizia).

– 1975etik aurrera hazkundea geratu egin da eta, 1981etik hona, biztanleak galdu ditu.

Gipuzkoa:

– 1900etik 1950era, biztanleria doi-doi bikoiztu da.

– 1950etik 1975era hazkunde bizkorra, baina Araban eta Bizkaian baino apalagoa.

– 1975etik aurrera Bizkaikoaren berdintsua izan da bilakaera.

Azken 5 urteetan (1981-1986) E.A.E.k izan dituen galerak, 5.709 guztira, honela banatu dira: Arabak 9.878 biztanle irabazi ditu, Bizkaiak 10.128 galdu eta Gipuzkoak 5.459 galdu.

c) *Evolución de la población por comarcas*

En la última década se han producido las siguientes variaciones:

	EVOLUCION DE LA POBLACION				
	1975	1981	1986	1975-1981	1981-1986
Comunidad Autónoma Vasca	2.072.100	2.141.809	2.136.100	+69.709	−5.709
Alava	237.473	257.850	267.728	+20.377	+9.878
Bizkaia	1.154.873	1.189.278	1.179.150	+34.405	−10.128
Guipúzcoa	679.754	694.681	689.222	+14.927	−5.459
Valles Alaveses	5.100	4.267	4.160	−833	−107
Llanada Alavesa	180.746	200.600	209.997	+19.854	+9.397
Montaña Alavesa	4.082	3.645	3.533	−487	−112
Arratia-Nervión	22.995	22.291	21.843	−704	−448
Bajo Bidasoa	61.836	64.714	67.085	+2.878	+2.794
Gran Bilbao	911.143	936.848	926.949	+25.705	−9.899
Bajo Deba	68.068	66.569	63.201	−1.599	−3.368
Alto Deba	65.988	67.136	66.356	+1.148	−780
Donostialdea	308.662	317.863	315.759	+9.201	−2.104
Duranguesado	86.830	90.912	91.812	+3.282	+900
Encartaciones	31.023	31.317	30.702	+294	−615
Rioja Alavesa	10.156	9.559	9.788	−597	+229
Busturialdea	45.216	46.234	46.077	+1.018	−157
Goierri	70.681	70.293	69.030	−388	−1.263
Estribaciones del Gorbea	5.876	5.696	5.515	−180	−181
Valle de Ayala	31.513	34.083	34.731	+2.570	+648
Lea-Artibai	27.593	28.132	28.396	+539	+264
Uribe-Butrón	30.073	33.544	33.371	+3.473	+173
Tolosaldea	45.691	46.696	45.965	+1.051	−731
Urola-Costa	58.828	61.410	61.826	+2.582	+416

—A partir de 1975 se da un incremento continuo en las comarcas siguientes: Llanada Alavesa, Valle de Ayala, Duranguesado, Lea-Artibai, Bajo Bidasoa y Urola-Costa.

—En cambio se da un descenso continuo en las comarcas siguientes: Valles Alaveses, Montaña Alavesa, Estribaciones del Gorbea, Bajo Deva, Goierri y Arratia-Nervión.

—El resto de las comarcas ofrecen un comportamiento diferente en los periodos 1975-1981 y 1981-1986. Todas ellas, excepto la Rioja Alavesa decrecen durante el período 1981-1986.

c) *Biztanleriaren bilakaera eskualdeka*

Azken hamar urteotan honako aldaketa hauek izan dira:

	BIZTANLERIAREN BILAKAERA				
	1975	1981	1986	1975-1981	1981-1986
Euskal Autonomi Elkartea	2.072.100	2.141.808	2.136.100	+69.709	−5.709
Araba	237.473	257.850	267.728	+20.377	+9.878
Bizkaia	1.154.873	1.189.278	1.179.150	+34.405	−10.128
Gipuzkoa	679.754	694.681	689.222	+14.927	−5.459
Añanaldea	5.100	4.267	4.160	−833	−107
Arabako Lautada	180.746	200.600	209.997	+19.854	+9.397
Arabako Mendialdea	4.082	3.645	3.533	−487	−112
Arratia-Nerbioi	22.995	22.291	21.843	−704	−448
Bidasoa Beherea	61.836	64.714	67.085	+2.878	+2.794
Bilbo Handia	911.143	936.848	926.949	+25.705	−9.899
Deba Beherea	68.068	66.569	63.201	−1.599	−3.368
Deba Garaia	65.988	67.136	66.356	+1.148	−780
Donostialdea	308.662	317.863	315.759	+9.201	−2.104
Durangaldea	86.830	90.912	91.812	+3.282	+900
Enkartazioak	31.023	31.317	30.702	+294	−615
Arabako Errioxa	10.156	9.559	9.788	−597	+229
Busturialdea	45.216	46.234	46.077	+1.018	−157
Goierri	70.681	70.293	69.030	−388	−1.263
Gorbeialdea	5.876	5.696	5.515	−180	−181
Alaraldea	31.513	34.083	34.731	+2.570	+648
Lea-Artibai	27.593	28.132	28.396	+539	+264
Uribe-Butroe	30.073	33.544	33.371	+3.473	+173
Tolosaldea	45.691	46.696	45.965	+1.051	−731
Urola-Kostaldea	58.828	61.410	61.826	+2.582	+416

– 1975etik aurrera etengabea izan da hazkundea honako eskualde hauetan: Arabako Lautada, Durangaldea, Lea-Artibai, Bidasoa Beherea eta Urola-Kostaldea.

– Honako eskualde hauetan, berriz, beherakada etengabea izan da: Añanaldea, Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Deba Beherea, Goierri eta Arratia-Nerbioi.

– Gainerako eskualdeek bilakaera ezberdina izan dute: 1975-1981 eta 1981-1986 aldietan. Guztiguztiek, Arabako Errioxak ezik, beherakada izan dute 1981etik 1986ra.

I. HIZKUNTZ GAITASUNA ETA AMA-HIZKUNTZA

I. COMPETENCIA LINGÜISTICA Y LENGUA MATERNA

I.1. COMPETENCIA LINGÜISTICA

I.1.1. En el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca

Como puede verse en la tabla adjunta, en la Comunidad Autónoma Vasca hay 511.006 euskaldunes, es decir, el 24,66 % de la población. Son 362.557, el 17,49 %, quienes afirman saber algo, esto es, los denominados cuasi-euskaldunes. Los erdaldunes, por el contrario, son 1.119.411, lo que representa el 57,86 % de los ciudadanos de la Comunidad Autónoma Vasca.

C.A.V.	Número	%
Euskaldunes	511.006	24,66
Cuasi-euskaldunes	362.557	17,49
Erdaldunes	1.199.411	57,86

I.1.2. Por Territorios Históricos

Las proporciones son muy diferentes en cada Territorio Histórico de la Comunidad Autónoma.

Mientras en Alava sólo el 6,71 % de la población es euskaldun, en Bizkaia lo es el 17,54 % y en Guipúzcoa el 43,76 %. El porcentaje de cuasi-euskaldunes es similar en los tres territorios y los erdaldunes constituyen el 39 % en Guipúzcoa, y el 64,56 % y el 76,35 % respectivamente en Bizkaia y Alava.

	ALAVA		BIZKAIA		GUIPUZCOA	
	Número	%	Número	%	Número	%
Euskaldunes	17.349	6,71	200.734	17,54	292.923	43,76
Cuasi-euskaldunes	43.871	16,96	205.016	17,91	113.670	16,98
Erdaldunes	197.567	76,35	738.958	64,56	262.886	39,27

22

I.1. HIZKUNTZ GAITASUNA

I.1.1. Euskal Autonomi Elkarte osoan

Taulan ikus daitekeenez, 511.006 euskaldun dago Euskal Autonomi Elkartean, biztanleriaren % 24,66a, beraz. Euskaraz zerbait dakitela erantzuten dutenak, hots, ia-euskaldun deiturikoak, 362.557, % 17,49 direlarik. Erdaldunak, berriz, 1.199.411 dira, Euskal Autonomi Elkarteko herritarren % 57,86a.

E.A.E.	Kopurua	%
Euskaldunak	511.006	24,66
Ia-euskaldunak	362.557	17,49
Erdaldunak	1.199.411	57,86

I.1.2. Herrialdeka

Euskal Autonomi Elkarteko hiru herrialdeetako oinarrizko hizkuntz egoeraren datu-adierazleen arabera, arras proportzio ezberdinak dituzte herrialdeok.

Euskaldunek, Arabako biztanleriaren % 6,71a besterik ez izan arren Bizkaikoaren % 17,54a eta Gipuzkoakoaren % 43,76a osatzen dute. Ia-euskaldunen proportzioa berdintsua da hiru herrialdeetan. Eta erdaldun hutsak Gipuzkoan % 39,27 izanik, % 64,56 eta % 76,35 jotzen dute Bizkai-Araban.

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Kopurua	%	kopurua	%	Kopurua	%
Euskaldunak	17.349	6,71	200.734	17,54	292.923	43,76
Ia-euskaldunak	43.871	16,96	205.016	17,91	113.670	16,98
Erdaldunak	197.567	76,35	738.958	64,56	262.886	39,27

Competencia lingüística por Territorios Históricos



I.1.3. Por comarcas

–Los euskaldunes constituyen más de la mitad (50 %-100 %) de la población total en todas las comarcas costeras, excepto en Donostialdea, Bajo Bidasoa y Gran Bilbao. En el resto de comarcas de Guipúzcoa también son mayoría los euskaldunes.

Lea-Artibai (84,53 %) y Urola-Costa (77,89 %) superan las tres cuartas partes de euskaldunes. En estas comarcas sólo cuatro municipios (Azkoitia, Azpeitia, Ondarroa y Zarautz) superan los 10.000 habitantes, contando 17.000 el más populoso. Los demás municipios que forman estas comarcas son, en su gran mayoría, de menos de 5.000 habitantes.

–Asimismo, los euskaldunes son más del 50 % en la comarca Arratia-Nervión. Espacialmente entre esta comarca y las antes citadas está el Duranguesado con un porcentaje situado en el intervalo 25-50 %.

–En las comarcas alavesas, tomadas en conjunto, la proporción de euskaldunes no llega al 10 % salvo en Estribaciones de Gorbea (32,47 %).

Por otro lado, en la Llanada Alavesa, comarca más poblada de Alava por la ubicación en ella de Vitoria-Gasteiz, el número de euskaldunes se reduce a un 6 %. Esta comarca es la que con mayor intensidad influye en el porcentaje medio de euskaldunes del territorio histórico en su conjunto.

–En Bizkaia las dos comarcas con menor proporción de euskaldunes son el Gran Bilbao (8,94 %) y las Encartaciones (1,64 %). Por otra parte, la comarca más vascófona, con diferencia, es Lea-Artibai. Sin embargo, el mayor número de cuasi-euskaldunes se encuentra en el Gran Bilbao.

–Se observa claramente que Guipúzcoa es el más vascófono de los Territorios Históricos de la C.A.V. De hecho, en casi la totalidad de las comarcas, excepto en las de Bajo Bidasoa (28,71 %) y Donostialdea (30,40 %), los euskaldunes constituyen más de la mitad de la población. El sensible descenso de la media de este territorio se debe a que los mayores núcleos de población del mismo están ubicados en dichas comarcas.

Hizkuntz gaitasuna herrialdeka



I.1.3. **Eskualdeka**

– Euskaldunak biztanleria osoaren erdia baino gehiago dira (% 50-% 100) kostako eskualde guztietan, Donostialdean, Bidasoa Beherean eta Bilbo Handian ezik. Gipuzkoako gainerako eskualdeetan ere gehiengoa euskalduna da.

Lea-Artibai (% 84,53) eta Urola-Kostaldeko biztanleetako hiru laurdenak baino gehiago euskaldunak dira. Eskualde hauetan lau herri bakarrik dira 10.000 biztanle baino gehiago dituztenak (Azkoitia, Azpeitia, Ondarroa eta Zarautz), hauetariko handienak 17.000 biztanle izanik. Eskualde hauetako gainerako herri gehienak 5.000 biztanletik beherakoak dira.

– Era berean, euskaldunak % 50etik gora dira Arratia-Nerbioi eskualdean. Eskualde honen eta goian aipatutakoen artean kokaturik Durangaldea dugu % 25-50arekin.

– Arabako eskualdeetan, orokorki hartuta, euskaldunak ez dira iristen % 10era, Gorbeialdean izan ezik (% 32,47).

Bestalde, Arabako Lautadan, Gasteiz –Arabako eskualderik biztanletsuena– bertan dagoenez, euskaldunak % 6 dira. Euskaldunen ehunekoari dagokionez eskualde honek eragiten dio gehien herrialde osoko batazbestekoari.

– Bizkaian, euskaldun gutxienik erakusten duten eskualde biak Bilbo Handia (% 8,94) eta Enkartazioak (% 1,64) dira. Bestalde, eskualderik euskaldunena, alde handiz gainera, Lea-Artibai da. Ia-euskaldunen kopururik handiena Bilbo Handian dago.

– Gipuzkoa, E.A.E.ko beste herrialdeen aldean, euskaldunena dela garbi ageri da. Azken batean, bertako eskualde gehienetan, Bidasoa Beherean (% 28,71) eta Donostialdean (% 30,40) salbu, euskaldunak biztanleriaren erdia baino gehiago direlako. Bidasoa Beherean eta Donostialdean Gipuzkoako bi herri biztanletsuenak daudenez, hauen eraginez jaisten da, azken batean, herrialde honetako batazbestekoa.


COMPETENCIA LINGÜISTICA POR COMARCAS
EUSKALDUNES
HIZKUNTZ GAITASUNA ESKUALDEKA
EUSKALDUNAK
Euskaldunak (%)
(%) Euskaldunes
< 5
5 - 24
25 - 49
50 - 75
> 75
0 5000 10000 20000 30000 40000 50000 m.

COMPETENCIA LINGÜISTICA POR COMARCAS
ERDALDUNES

HIZKUNTZ GAITASUNA ESKUALDEKA
ERDALDUNAK




COMPETENCIA LINGÜISTICA POR MUNICIPIOS
EUSKALDUNES
HIZKUNTZ GAITASUNA UDALERRIKA
EUSKALDUNAK
Euskaldunak (%)
(%) Euskaldunes
> 75
50 - 75
25 - 49
5 - 24
< 5
0
0 5000 10000 20000 30000 40000 50000 m.
• Herri larreak eta herri lurrak
Pastizales y tierras comunales


COMPETENCIA LINGÜISTICA POR MUNICIPIOS
ERDALDUNES
HIZKUNTZ GAITASUNA UDALERRIKA
ERDALDUNAK
Erdaldunak (%)
(%) Erdaldunes
> 75
50 - 75
25 - 49
5 - 24
< 5
0
0 5000 10000 20000 30000 40000 50000 m.
Herri larreak eta herri lurrak
Pastizales y tierras comunales
32
33

I.1.4. Por edades

Del análisis de la competencia lingüística por edades se desprende lo siguiente:

– El porcentaje de euskaldunes aumenta con la edad hasta los 10 años, edad en la que alcanza el 29%. En este grupo se encuentran, entre otros, los niños de preescolar y la primera etapa de EGB.

– De 10 a 19 años, la proporción de euskaldunes disminuye con la edad. Esta pérdida es de cinco puntos en los cuatro primeros años (hasta los 14 años de edad), aunque luego se reduce.

– En el grupo de 20-30 años, el porcentaje se sitúa en torno al 22%.

– Entre 30-50 años el porcentaje de euskaldunes se mantiene en el 20-21%. Este grupo de edad presenta el porcentaje más bajo de euskaldunes.

– En los de más de 50 años, esta proporción va aumentando hasta alcanzar el 34%, dándose los valores más altos en los mayores de 65 años.

Por lo que respecta al porcentaje de los cuasi-euskaldunes se dan dos tendencias distintas en relación con la edad:

– Aumenta hasta los 15 años alcanzando el porcentaje de los cuasi-euskaldunes el 41%. Ello coincide con el período de escolarización obligatoria.

Hay que destacar que en el grupo de edad de 10 a 16 años los cuasi-euskaldunes superan incluso a los erdaldunes. En el grupo de edad de 2 a 17 años los cuasi-euskaldunes duplican a los euskaldunes en Bizkaia, y los triplican en Alava.

– A partir de 15 años, la proporción de cuasi-euskaldunes desciende y se produce una fuerte caída (21 puntos) en el grupo de 15-23 años. A partir de los 45 años los porcentajes de cuasi-euskaldunes son insignificantes. La población es o no es euskaldun, pero no hay estadios intermedios.

Competencia lingüística por edades (C.A.V.)



I.1.4. **Adinaren arabera**

Hizkuntz gaitasuna urtez urteka aztertzean, ezaugarri hauek bereiz daitezke:

